

BERGARAKO UDALA ETA MUSIKA ESKOLAREN ARTEKO HITZARMENA

Bergaran, 2024ko apirilaren 29an


BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako behin-behineko alkatea, Bergarako Udalaren ordezkartzan.

Bestetik, Pablo Ayerbe Mendicute jauna, Bergarako Musika Eskolako lehendakaria, Musika Eskolaren ordezkartzan (IFZ: G20137931).

Pablo Ayerbe Mendicute jaunak, alkatearen aurrean adierazi ondoren berak ordezkartzen duen elkarte ez dagoela estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 legeak eta gainerako legediak aurreikusitako debeku kasuetan, bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta ondorengo

ADIERAZI DUTE:

- 
1. Bergarako Musika Eskola irabazteko asmorik gabeko elkarte del.
 2. Bergarako Musika Eskolak urte askotan zehar Bergarako ume, gazte eta helduei musika eta kantua ikasteko aukera eman diela, eta horrela hornitu ahal izan direla herriko musika, talde eta abesbatzak; gainera herriko hainbat festa edo jaialditan parte hartzen duela eta horretan jarraitzeko asmoa duela.
 3. Udalaren ustez, herritarrei zerbitzu hori eta hezkuntza musikala ematea onuragarria del.
 4. Udalak horrela eskatuta, 2014/2015 ikasturteko Musika Eskola dantza ere irakasten ari del.
 5. Udal aurrekontua eta Musika Eskolari 2023/2024 ikasturterako eman zaion dirulaguntza onartu arte, dirulaguntza horren kontura 14.000€ aurreratzea erabaki zutela eta horretarako behin-behineko hitzarmen bat sinatu zutela 2023ko azaroaren 7an.
 6. 2024ko udal aurrekontua onartu del.
 7. Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak 22.2 artikuluan ezartzen duela zuzenean eman ahalko direla aurrekontuetan izendun gisa aurreikusitako dirulaguntzak, dirulaguntza horien hitzarmenetan eta araudi erregulatuaz jaso direla baldintzen arabera, eta 28 artikuluan ezartzen du hitzarmenak ohiko tresna izango direla dirulaguntza horiek bideratzeko.

Halaber, Dirulaguntzen Lege Orokorren Erregelamenduak 66 artikuluan aurreikusten duela horrelako kasuetan emakidaren egintzak edo hitzarmenak emakidaren oinarri arautzaile-izaera izango duela Dirulaguntzen Lege Orokorrean ezarritakoaren ondorioetarako, eta, berorren edukia zehazten duela.

Hala, bada, adierazitako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritik, bi aldeek erabakitzen dute honako klausulak dituen hitzarmena hitzartu dute:

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Musika Eskolak orain arte bezala herritarrei musika eta dantza ikasteko aukera emango die.

Halaber, ondoren jasotakoa ere betetzeko konpromisoa hartzen du:

1. Hitzarmen honetan adosten den diru-laguntzaren barruan, Udaletik beste diru-laguntzarik jaso gabe, ekitaldi hauetan parte hartuko du Musika Eskolak:

- Bergarako Musika Eskolako gazteen bandak ondorengo ekitaldietan parte hartuko du: San Martin jaietako haurren danborradan eta aratusteetako kalejiran.
- Herriko talde ezberdinek eskaintzen duten Gabonetako kontzertuan Bergarako Musika Eskolak beharrezkoak diren antolaketa/bitartekaritza lanak egingo ditu.
- Musika Eskolako trikitilariak ondorengo egunetan joko dute: aratusteetako osteguneko Hartzaren kalejiran, Erramu Zapatu goizeko kalejiran eta ondorengo Ibargarai kaleko emanaldian, San Martinetako feria egunean eta iraila bukaerako Kultura Kalean ekimenean.
- Bergarako Musika Eskolako talde ezberdinek Udaberriko Kontzertua eskainiko dute.
- "Apirilean Musika" egitaraua antolatuko du.
- Nekazal auzoetan, udaleko kultura zerbitzuarekin adostuta, urtean bi ekitaldi gauzatuko dira.
- Dantzari dagokionez urtean ondorengo erakustaldiak egingo dira: Aratusteetako osteguneko Hartzaren kalejiran Sorgin Dantza, Erramu zapatu goizean kalejira eta dantza erakustaldiak gune ezberdinetan, Musika eskolako gabonetako eta udaberriko kontzertuetan.
- Udalak horrela eskatuz gero, udaleko bi ekitalditan bi aurrezku dantzatuko dituzte musika eskolako ikasleek.
- Erakustaldi hauez gain Musika Eskola arduratuko da dantza askatuko haurren eta helduen dantza txapelketak antolatuz. Txapelketa honen 2023ko ekitaldia dagoeneko antolatuta dago eta 2024ko, hurrengo ikasturteko diru-laguntza hitzarmenean jasoko da.
- Udalak eskatuta, honek antola dezakeen beste edozein ekitalditan parte hartuko du, aurrez elkarrekin adostuta.
- 40.urteurrenaren ekitaldien baitan hauek antolatuko dira:
 - a. Debagoieneko piano jaialdia.
 - b. Euskadiko ikasleen orkestra.
 - c. Soka taldeen kontzertua.

2.- Musika Bandak, Orkestra Sinfonikoak eta Txistulari Bandak entseguetarako orain arte izan duten lokala izango dute. Bertan dagoen materiala Udalarena dela aitortzen du Musika Eskolak (Musika eskolakoak diren bi kontrabaxu izan ezik).

3.- Herritarrei edozein ekitaldiren berri emanez edo zerbitzu bat eskainiz propaganda egiten badu, Udalaren laguntza duela adieraziko du.



Begarako
Udala

4.- Euskararen erabilerari dagokionez, 2008an, Bergarako arlo soziokulturaleko elkarteek (tartean Musika Eskolak berak) eta Udalak euskararen erabilera sustatzeko *Eingou* hitzarmena sinatu zuten (ikusirik eranskina). Musika Eskolak eta Udalak konpromisoa hartzen dute hitzarmen hartan jasotako egitekoak betetzeko. Horrez gain, Musika Eskolak urteko plangintza egingo du Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin, urtez urte, euskararen normalizazioan sakontzen joateko (Bikain, Euskaraldia...).

5.- Musika eskolak konpromisoa hartzen du, beraien aurrekontuaren %40 gutxienez baliabide propioetatik (gurasoen kuotak, etab...) ateratzeko.

6.- Ekitaldien antolaketari dagokionez (materiala, segurtasuna, etab...), batez ere jende asko mugitzen duten ekitaldietarako, udalarekin batera lankidetzan arituko da.

7.- Musika Eskolak bere lan esparruan gizon eta emakumeen arteko genero berdintasuna sustatuko du eta hezkuntza musikal hezkidetzaila eskainiko du.

BIGARRENA: Bergarako Udalak, berriz ondorengoak betetzeko konpromisoa hartzen du:

1) Bergarako Musika Eskolari 2023/2024 ikasturterako 226.415€ euroko diru-laguntza ematea. Dirulaguntza hori justifikatu beharreko aurrerakin gisara ordainduko da. Jadanik diru-laguntza horretatik 2023ko irailetik abendura bitartean 14.000 euro jadanik ordaindu zaizkio. Diferentzia (212.415€) honela ordainduko dio Udalak Musika Eskolari: 2024ko apiriletik ekainera bitartean, hilero 70.805€ ordainduko zaizkio Musika Eskolari transferentzia bidez.

2) Bergarako Udalak honen bidez Musika Eskolari lagunduko dio bertan zehaztutako ekitaldien antolaketan udaleko lan plangintzaren barruan horretarako aukera dagoenean. Ondorengo lanak gauzatuko ditu: taulatuen eta karpn muntaketa eta desmuntaketa, lurzorua babesteko material ipini eta kendu, frontoiko ekitaldietarako instalazioen prestaketa (argia, berogailua, anbulantzia, etab...).

Honen guztiaren eskaera garaiz egingo da. Udalak lan hauek duten kostuaren estimazioa egingo du eta zenbateko horren berri emango dio Musika Eskolari.

HIRUGARRENA: Bergarako Musika Eskolak honako baldintzak ere bete betetzeko konpromisoa hartzen du:

a) Dirulaguntza ematea oinarritu duen helburua betetzea, proiektua betearaztea, ekintza gauzatzea edo jokabidea hartzea.

b) Dirulaguntza eman duen organoari honako hauek justifikatzea: betebeharrak eta baldintzak bete izana, ekintza gauzatu izana eta dirulaguntza jaso edo erabiltzearen helburua bete izana.

c) Dirulaguntza ematen duen organoak eta eskuduntza izendaturik duten estatuko nahiz erkidegoko kontrol-organismoek egin ditzaketan egiaztatze-jardunak eta finantza-kontrolak onartzea; bai eta aurreko jardunak burutzeko errekeritutako informazioa ematea ere.

d) Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako ekintzak finantzatzen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bitarteko batzuk lortu izana. Jakinarazpena, horien berri izan eta berehala egin beharko da, eta, edozelan ere, fondoetara emandako erabilpena justifikatu baino lehen.



Begarako
Udala

- e) Ogasunekiko betebeharreran eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea. Halaber, Bergarako Udalarekin inongo motatako zorrik ez izatea eta betebeharrer fiskaletan, zergatan eta zergaz aparte tasetan eta prezio publikoen ordainetan egunean egotea. Bergarako Udalak ofizioz egiaztatuko du elkarteak Bergarako Udalarekin egunean dagoela.
 - f) Jasotako fondoak zertan erabili diren egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, gutxienez sei urtez, bai eta dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrol jardunak burutu daitezzen.
 - g) Jasotako fondoak itzultzea oinarri hauetan aurreikusitako kasuetan edota indarrean dagoen gainontzeko legediak jasotzen dituen kasuetan.
 - h) Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar beste baimen lortzea, eta baimenon xedapenak betetzea.
 - i) Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea, udalaren aldetik jarraipena egin edo laguntzeko.
 - j) Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea.
 - k) Neurriak hartzea diruz lagundutako ekintzen berri emateko, eta horietan adierazi beharko da Bergarako Udalak diruz lagundu duela.
- Ateratako eskuorri, kartel, sare sozialetan edo bestelako publizitate euskarrietan, Bergarako Udalak diruz lagundu duela adierazi beharko da. Halaber, aurkezpen edo prentsaurrekoak egiten baditu, Bergarako Udalari gonbidapena egingo dio.

Gainera, baldintza hauek bete beharko dituzte:

— Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruz:

1.- Bete egin beharko ditu 1/2023 Legegintzako Dekretua –martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena– eta 3/2007 Lege Organikoa –Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrikoa–.

2.- Udalak markatutako irizpideak jarraitu beharko ditu elkarteak. Beraz, jarduera, proiektu edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik, estereotipo eta rolak alde batera utziz. Era berean, ezingo da diskriminatu sexu-arrazoiengatik. Eta emakumeen presentzia eta parte hartzea eremu guztietan ahalbidetuko da (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean eta abarretan).

Edozein sari-mota emateko sortzen diren hautaketa-epaimahaietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu bermatuko da. Ordezkariak orekatu izango da lau kide baino gehiago dituzten epaimahaietan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkariak izatea.

— Adikzioen prebentzioari dagokienez, dirulaguntza hauek jasotzeko ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen 1/2016 Legeak edari alkoholduen publizitatea, sustapena, banaketa eta kontsumoa mugatzeko neurriak betetzea, bereziki bere jarduna adingabeei zuzendutakoa denean. Horrelako neurriak ere hartu beharko dira tabakoaren adikzioa prebenitzeko.

3.- Sexuaren aldagaia, sistematikoki txertatzea egiten diren estatistika, inkesta eta datu bilketa guztietan, bai eta udalari aurkeztu beharreko txostenetan.



Bergarako
Udala

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, dirulaguntza hau kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatzeko behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunei: zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari (GSDO): GSDOrekiko obligazioen ordainketan egunean egotea
- Elkarteen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroari:
 - Estatutuak
 - Lehendakariaren datuak

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.
- Elkarteen Erregistroko agiria lehendakariaren datuekin eta elkarteen estatutuak

LAUGARRENA: Udalak egingo duen diru-ekarpenaz gain, helburu bera duen beste edozein diru-laguntza ere jaso daiteke, Udalari aurkeztuko zaion txosten ekonomikoan sarreretan azaldu beharko da.

Hala eta guztiz ere, diru-ekarpenak (Udalarenak berak edo beste batzuenak batuta) eta/edo bestelako sarrerak batuta ezingo du inola ere altuagoa izan.

BOSGARRENA: Hitzarmen honen iraupena 2023/2024 ikasturterako da, eta ez da luzatzen ondorengo ikasturteetara. 2023/2024 ikasturtea 2023ko irailean hasi eta 2024ko ekainean amaitzen dela ulertuko da.

Hurrengo ikasturterako (2024/2025) Bergarako Musika Eskolak diru-laguntza eskatu nahi badio Udalari, aurrekontua aurkeztu beharko dio, eta Udalak egoki iritzitako erabakia hartuko du.

SEIGARRENA: Ikasturtea bukatu eta gehienez 4 hilabetera (abenduaren 31 baino lehen), aurreko urteko gorabeherak eta hurrengorako asmoak jasotzen dituen txosten bat aurkeztuko dio Musika Eskolak Udalari, eta honekin batera urteko kontuak eta aurrekontuak. Kontuok hirugarren batek egindako auditoria izan beharko dute. Kontabilitateko dokumentazio guztia ikuskatu ahal izango du Udalak.



Begarako
Udala

Halaber, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Dirulaguntza ordaintzeko eskaera, udaleko eskaera orokorraren inprimakia erabilia.
- b) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarreraren edo dirulaguntzen xehetasun-zerrenda, haien zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta agiriak erantsita. Bestelako dirulaguntzarik ez badute jaso, horrela adierazi beharko dute.
- c) Programatutako jardueri buruzko dokumentazio grafikoa (kartelak, esku-programak, liburuxkak, banatutako idatzizko materiala, prentsa-oharrak, etab.

Halaber, Udalak ofizioz egiaztatuko du Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela eta jarduera burutu ahal izateko Bergarako udalarekiko betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Ikasturtean justifikatutako gastuak aurrekontuan aurreikusitakoak baino txikiagoak badira, diru-laguntza proportzio berdinean gutxituko da. Bergarako Musika Eskolak diferentzia itzuli egin beharko dio Udalari Udalak zehaztutako epean.

Egindako gastuak berriz, aurkeztutako aurrekontuan jasotakoak baino handiagoak badira, Udalak onartutakoa baino diru-laguntza gehiago ez du emango.

ZAZPIGARRENA: Ez da beharrezkoa ikusten berme bat eskatzea ez baita arriskurik aurreikusten hitzarmen honetan jasotako betebeharrak ez betetzeko.

ZORTZIGARRENA: Izaera pertsonaleko datuen babesa.

Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duenak adierazten du bertan ezarritako betekizun guztiak bete egiten dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak goitik behera onartzen dituela.

Sinatzen duenak deklaratu du hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela, ez duela isilean ezer gorde edo aldatu.

Aldi berean, izenpetzen duenak adierazten du Bergarako Udalari eman dizkion Datu Pertsonalak bere onespenez eman dizkiola eta datu horiei tratamendua emateko baietza ematen duela.

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko du Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa eta aplikagarri diren gainerako xedapenak.

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauek aplikatuko dira: Diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa; lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; Bergarako udaleko dirulaguntzen ordenantza orokorra; eta Bergarako aurrekontuetako udal araua.

HAMARGARRENA: Hitzarmen honetatik auzigaiak sortzen badira, hitzarmenak berak izaera juridiko-administratiboa duenez, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzio-ordenaren menpe geratuko dira.



**Begarako
Udala**

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

Begarako alkatea



Gorka Artola Alberdi

**Begarako Musika Eskolako
Lehendakaria**

Pablo Ayerbe Mendicute





Euskararen erabilera bultzatzeko helburuak eta konpromisoak

EINGOU hitzarmena 2008

A) EZAGUTZA EDO HIZKUNTZA GAITASUNA

1. Ahalegin berezia egingo da entitateko **zuzendaritza-organoetako kideak** eta, batez ere, lehendakari, idazkari eta diruzaina, beren lana euskaraz betetzeko gaitasuna dutenak izan daitezen
2. Ahalegin berezia egingo da entitateko **begirale, entrenatzaile, irakasle zein bestelako langileak** euskaldunak izan daitezen, C3 puntuan markatutako helburuak bete ahal izateko.

B) EUSKARAREN BARNE ERABILERA

B.1. ZUZENDARITZA ORGANOETAN

1. Batzar Nagusi, zuzendaritza batzorde, eta abarretako **bilerak euskaraz** egingo dira, ahal den neurrian.
2. Entitateko zuzendaritza organoetako **bilera deiak eta aktak** euskaraz idatziko dira, ahal den neurrian, eta premiazkoa denean itzuliko dira gaztelerara.

B.2. BARNE ADMINISTRAZIOAN

1. Entitateak bere **barne administrazioa** euskaraz eramateko ahalegina egingo du, bai ahoz bai idatziz.
2. Entitatearen estatutu, arautegi, barruko inprimaki eta gisa bereko **oinarrizko testuak euskaraz** erabiliko dira eta, euskaraz ez badaude, euskaratu egingo dira.

C) EUSKARAREN KANPO ERABILERA

C.1. KANPO IRUDIAN

1. Entitatearen errotulua, kanporako inprimakiak, bazkide txartelak, zigiluak, fakturak, telefono erantzungailua, web gunea eta gisa bereko oinarrizko **kanpo erabilerako elementuak euskaraz** egingo dira eta ez badaude euskaratu egingo dira.
2. Entitatearen **publizitatea** euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz egingo da, baina beti ere, euskarari lehentasuna emango zaio.



C.2. BAZKIDE ETA HERRITARREKIKO HARREMANETAN

1. Bazkide eta herritarrekin harremanak izango dituzten pertsonak euskaldunak izan daitezen ahalegin berezia egingo da.
2. Bazkide eta herritarrei ahoz banaka zuzentzean, ahal den neurrian, lehen hitza beti euskaraz izango da.
3. Bazkide edota herritarrei **idatziz banaka** zuzentzean, "**euskaldunari euskaraz**" bidaliko zaio eta besteei, behar izanez gero, euskaraz eta gaztelaniaz.
4. **Bazkide edota herritarrei modu orokorrean idatziz** zuzentzean, hartzaile denak euskaldunak badira, idatziak euskara hutsean bidaliko dira eta, bestela, euskaraz eta gaztelaniaz baina euskarari lehentasuna emanda.
5. **Ahozko komunikazio orokorretan** ere, ahal dela, euskarari lehentasuna emango zaio, erdarazkoaren aurretik azalduaz adibidez.

C.3. ENTRENAMENDU, ENTSEGU ETA IKASTAROETAN

1. Ahalegin berezia egingo da **entrenamendu, entsegu, ikastaro**, eta abarrak euskaraz izan daitezen, bereziki 18 urtez azpiko gazte eta umeei eskaintzen zaizkien ekintzetan.
2. Ahalegin berezia egingo da entrenamendu, entsegu, ikastaro, eta abarretan erabiltzen den **material idatzia** euskaraz egon dadin, bereziki 18 urtez azpiko gazte eta umeentzako ekintzetan.

C.4. KANPO JARDUERATAN

1. Entitateak herritarrentzako antolatzen dituen **jarduerak iragartzeko** beti eduki bertsuak izan ohi dituzten esku programa, iragarki, kartel eta abarrak euskara hutsez izango dira. Baldintza hori betetzen ez duten idazkietan euskarari emango zaio lehentasuna.
2. Entitateak antolatzen dituen kanpo jardueretan ere, ahal den neurrian, euskara hutsa erabiliko da megafoniazko mezuetan: aurkezpenetan, sari banaketetan eta abarretan.

D) HITZARMENKIDEEN ARTEKO HARREMANAK eta BESTE ENTITATE BATZUEKIKO HARREMANAK

1. **Hitzarmena sinatzen duten entitateen arteko harremanak** beti euskaraz izango dira eta hitzarmen hau izenpetzen duten entitateen gaiei buruzko espedienteak ere oso-oso euskaraz tramitatuko ditu entitate bakoitzak.
2. Entitatea euskaraz komunikatuko da, bai ahoz bai idatziz, posible den heinean, berarekin harremanak dituzten beste erakundeekin ere: Diputazio, Eusko Jauriaritza, Federazio, etab.

